

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko uztailaren 18an hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez egin da 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea sustatzeko dirulaguntzetarako deialdia

BDNS(Identif.): 852171

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/852171>).

Lehenengoa. Onuradunak

Enpresak, edozein forma juridiko dutela ere, enpresaburu indibidualak barne, baldin eta:

- Egoitza soziala eta/edo fiskala Laudion badute.
- Mikroenpresak badira (gehienez 10 langile).
- 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean EJZn alta eman badute.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen badituzte.
- Dirulaguntza publikoak jasotzeko debekurik ez badute.

Bigarrena. Helburua

Laudioko udalerrian autoenplegua eta enpresa berrien sorrera sustatzea, dirulaguntzen bidez aurre egin ahal izateko lehen 12 hilabeteetan jarduera martxan jartzeak eta funtzionamenduak eragindako gastuei.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantza (ALHAO, 28 zk., 2021eko martxoaren 10ekoa), eta deialdi hau.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntza 2.000,00 eurokoa izango da enpresa edo enpresaburu indibidual bakoitzeko, eta 3.000,00 euroraino handitu ahal izango da Laudio Hazik ziurtatutako enpresa-plan bat aurkezten bada.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogeita hamar egun baliodun, deialdia onartzeko iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2025eko uztailaren 18a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ